

# 02

## GOGORATZEN DUZU?

**A**skotan hitz egiten dugu umetako eta gaztetako oroitzapenei buruz: inguruko pertsonak eta gauzak lehen nolakoak ziren, gure herrian edo hirian zer zegoen, gure ohiturak eta gustuak nolakoak ziren... Unitate honetan, hori guztia euskaraz egiten ikasiko duzu.

**A** menudo hablamos de nuestros recuerdos de infancia y juventud: cómo eran los objetos y personas de nuestro entorno, qué había en nuestro pueblo o ciudad, cómo eran nuestros gustos y hábitos... En esta unidad te prepararás para ello.

### Unitatearen helburu nagusiak

- **Pertsona eta objektuak lehenaldian deskribatzea.** Describir personas y objetos en pasado.
- **Garai batean non bizi ginen, herrian zer zegoen, etxean zer geneukan... adieraztea.** Exponer dónde vivíamos antes, qué había en nuestro pueblo o ciudad, qué teníamos en casa...
- **Iraganeko zenbait ohitura eta gustu adieraztea.** Exponer algunos hábitos y gustos del pasado.

### Unitatearen atalak

#### Lehenengo atala

**ATARIAN** Pertsona batzuk gaztetan nolakoak ziren, zer zuten eta zer ez zuten ikusiko duzu.

#### Bigarren atala

**A** Lehenik, jendeak egoera ezberdinetan pertsonen eta objektuen deskribapenak nola egiten dituen landuko duzu.

**B** Segidan, pertsona batzuk lehen non bizi ziren, herrian zer zegoen eta etxean zer zeukaten nola azaltzen duten aztertuko duzu.

**C** Azkenik, jendeak bere lehengo ohitura eta gustuei buruz nola hitz egiten duen ikusiko duzu.

#### Hirugarren atala

**ERABILI** Atal honetan, zu izango zara protagonista, eta unitatean zehar landutakoa praktikatu duzu eta ebaluatuko.

#### Laugarren atala

**BADAKIZU** Autoebaluaziorako galderei erantzungo diezu. Horrekin batera, bideo-esketxa ikusteko aukera eskaintzen zaizu.



**HELBURUA** Iraganeko zenbait ohitura eta gustu adieraztea.

**OBJETIVO** Exponer algunos hábitos y gustos del pasado.

Bizitzan zehar gure zaletasunak eta gustuak aldatu egiten dira, kultura eta ohitura berriak ezagutzen ditugulako, adinarekin beste zaletasun batzuk ditugulako...

### KANPOTARRAK GURE ARTEAN

Gure artean atzerriko jende asko bizi da; beren ohiturak galdu gabe, gure ohitura batzuk bere egin dituzte.

Urola telebistako *Berriketan* saioan bost atzerriarri elkarrizketa egin diete. Euskal Herrian bizi dira, eta beren zaletasunak eta gustuak azaldu dituzte.

1



Primero, escucha lo que cuentan estas cinco personas sobre sus nuevos gustos y aficiones, y, después, relaciona cada uno de ellos con la imagen que le corresponde. Lehenik, entzun bost pertsona hauek zer kontatzen duten beren gustu eta zaletasunei buruz, eta, ondoren, lotu pertsona bakoitza dagokion irudiarekin.

a. Octavio



b. Yanet



c. Vasile



d. Suni eta Kwan



e. Steven



1. Mendia



2. Txipiroiak bere tintan



3. Sagardoa



4. Barraskiloak



5. Pilota

### HIZTEGIA

**atzerri:** extranjero (país)

**atzerriar:** extranjero, -a (persona)

**barraskilo:** caracol

**bere egin:** tomar para sí, hacer suyo, -a

**gustu:** gusto

**kanpotar:** extranjero, -a (persona)

**sagardo:** sidra

**saio:** programa

**txipiroiak bere tintan:** chipirones en su tinta

**zaletasun:** afición

### NOR-NORI LEHENALDIAN

#### NOR-NORI EN PASADO

|       | singularra   | plurala         |
|-------|--------------|-----------------|
| niri  | zitzaidan    | zitzaizkidan    |
| hiri  | zitzaian/nan | zitzaizkian/nan |
| hari  | zitzaion     | zitzaizkion     |
| guri  | zitzaigun    | zitzaizkigun    |
| zuri  | zitzaizun    | zitzaizkizun    |
| zuei  | zitzaizuen   | zitzaizkizuen   |
| haiei | zitzaien     | zitzaizkien     |

#### GALDE-PERPAUSAK:

Zer gustatzen **zitzaizuen** umetan?

¿Qué os gustaba en la infancia?

Gustatzen **zitzaizun** ardo zuria?

¿Te gustaba el vino blanco?

#### BAIEZKO PERPAUSAK:

Umetan kroketak gustatzen

**zitzaizkigun.**

En la infancia nos gustaban las croquetas.

**Bai,** ardo zuria gustatzen **zitzaidan.**

Si, si me gustaba el vino blanco.

#### EZEZKO PERPAUSAK:

**Ez, ez zitzaidan** ardo zuria gustatzen.

No, no me gustaba el vino blanco.

## HIZTEGIA

**aterpe:** lugar cubierto  
**bidegorri:** carril bici  
**denbora-pasa:** pasatiempo  
**egungo:** actual  
**futboleant jokatu:** jugar a fútbol  
**garai bateko:** antiguo, -a  
**harrapatu:** coger  
**jokatu:** jugar, recrearse  
**jolas:** juego  
**jolastoki:** lugar de recreo  
**kaiolatxo:** jaula pequeña  
**kilker:** grillo  
**patinatu:** patinar  
**soka:** comba  
**sokasaltoan ibili:** saltar a la comba  
**zertan jokatu:** jugar a qué  
**zomorro:** bicho  
**zulo:** agujero

 -T(Z)EA GUSTATZEN  
 ZITZAIKAN

## ME GUSTABA + INFINITIVO

Con el verbo **gustatu** el verbo nominalizado toma la terminación **-t(z)ea**.

Irakurtzea gustatzen zitzaizun.  
*Te gustaba leer.*

Sagardoa edatea gustatzen zitzaion.  
*Le gustaba beber sidra.*

La nominalización implica que el verbo vaya siempre en singular.

Arrain-zopa prestatzea gustatzen zitzaidan.  
*Me gustaba preparar sopa de pescado.*

Babarrunak prestatzea gustatzen zitzaidan.  
*Me gustaba preparar alubias.*

Lan-koadernoak: 45. or.

**2** Ahora, vuelve a escuchar lo que cuentan, y escribe en qué han cambiado sus gustos y aficiones. **Orain, entzun berriaz kontatzen dutena, eta idatzi zertan aldatu diren beraien gustuak eta zaletasunak.**

- Octaviori, lehen, ez zitzaion sagardoa gustatzen, baina, orain, gustatzen zaio.
- .....
- .....
- .....
- .....

## DENBORA-PASAK

Garai bateko denbora-pasak eta egungoak oso ezberdinak dira. Gaur egun, ume eta gaztetxoentzako jolas elektronikoak normalak dira, baina garai batean ez zegoen ordenagailurik.

Foro honetan, lehenengo jolasei buruz hitz egiten dute: garai batean zertan jokatzen zuten, zer gustatzen zitzaien egitea...

**3** Lee y completa la información de este foro con las siguientes frases. **Irakurri eta osatu blog hau, honako esaldi hauek erabiliz.**

- niri patinatzea asko gustatzen zitzaidan
- txabolak egitea gustatzen zitzaigun
- guri futboleant jokatzea gustatzen zitzaigun
- kilkerrak harrapatzea gustatzen zitzaidan
- sokasaltoan ibiltzea gustatzen zitzaigun

## KALEAN JOLASEAN

**Foro honetan, garai bateko denbora-pasei eta jolasei buruz hitz egiten dugu. Gure garaian ez genuen ordenagailurik, baina oso ondo pasatzen genuen, ezta? Animatu eta kontatu zer egitea gustatzen zitzaizun.**

## Luis

Kuadrillakoak oso futbolzaleak ginen, eta (1) \_\_\_\_\_. Udan hondartzan edo futbol-zelaian jokatzen genuen, baina neguan ikastolako jolastokian, aterpean. Igandero elkartzen ginen lagunak, eta oraindik ere batzuk elkartzen gara.



## Julen

Ni herri txiki batean bizi nintzen, eta beti kalean ibiltzen nintzen herriko neska-mutilekin. Mendira joatea eta (2) \_\_\_\_\_. Zuhaitz artean egiten genituen txabolak. Oso ondo pasatzen genuen!

## Nekane

Lehen, (3) a, eta telebistan beti patinaje artistikoa ikusten nuen. Herriko kaleetan ibiltzen nintzen aurrera eta atzera. Baina kalean zuloak zeuden, eta askotan erortzen nintzen. Ez zegoen bidegorririk!





### Pilar

Lehen, ez genuen hainbeste jostailu, eta kalean denbora asko pasatzen genuen. Denok genuen soka, eta eskola-tik atera ondoren, (4) \_\_\_\_.

### Pello

Niri zomorroak gustatzen zitzaizkidan, batez ere, kilker-rak. Etxe ondoan zelaia zegoen, eta (5) \_\_\_\_ . Kaiola-txoan sartzen nituen, eta egun osoa kri-kri-kri pasatzen zuten. Nire gelan edukitzen nituen.



Pertsona hauek foroa irakurri dute, eta beraiei umetan zer egitea gustatzen zitzaien kontatu dute.



4 Observa las imágenes, y completa lo que han contado estas otras personas. **Erreparatu irudiei, eta osatu honako pertsona hauek zer kontatu duten.**



bizikletaz ibili

### Dorleta

Guk etxean bizikleta bakarra geneukan. Anaiari eta bioi (1) *bizikletaz ibiltzea gustatzen zitzaigun*, eta beti ibiltzen ginen borrokan. Azkenean, aitak beste bat erosi zuen, eta bakoitza berearekin ibiltzen zen.



pilotan jokatu

### Agustin

Gure herrian pilotaleku ederra zegoen, eta niri (2) .....  
..... . Gehienetan lagunekin jokatzen nuen, baina lagunak falta zirenean, aitarekin ibiltzen nintzen.



kaniketan eta txapetan jokatu

### Manu

Guri (3) ..... . Auzoan txapelketak egiten genituen, eta ni oso trebea nintzen. Txapa eta kanika mordoa nituen!

### Olga

Niri, ahizparekin, (4) ..... . Amaren arropak janzen genituen, eta ezpainak eta begiak margotzen genituen. Ahizpa zaharragoa zen, eta beti berak agintzen zuen.



antzerkia egin



Haur-komikiak irakurri

### Jose txo

Gure etxean liburu, aldizkari eta ipuin asko genituen, aitzak liburu-denda zuen eta. Niri (5) .....; gelan sartzen nintzen, eta ez nintzen ateratzen.

## HIZTEGIA

**antzerki:** teatro  
**borrokan ibili:** pelearse  
**futbolzale:** aficionado, -a al fútbol  
**ipuin:** cuento  
**kaniketan jokatu:** jugar a canicas  
**mordo:** montón  
**pilotan jokatu:** jugar a pelota  
**trebe:** hábil  
**txapelketa:** campeonato  
**txapetan jokatu:** jugar a chapas

## HIZTEGIA

**abuztu:** agosto  
**ahizpa eta biok:** mi hermana y yo  
**desiratu:** desear  
**elkartu:** juntarse  
**irratsaio:** programa de radio  
**opor:** vacación  
**oporrez gozatu:** disfrutar de vacaciones  
**sos:** dinero  
**uda:** verano  
**uztail:** julio


Bukatzeko, iraganeko ohiturak eta gustuak adierazteko hiztegia eta egitura batzuk errepasatuko ditugu.

Tomasek urte asko daramatza Argentinan bizitzen, eta Gabonetan Agustin eta Maritxu lehengusuak joan zaizkio bisitatzen. Gaur Tomas malenkoniatsu jarri da, eta umetako oroitzapenak kontatu dizkie lehengusuei.

7



Lee el texto sobre los recuerdos de la niñez de Tomás, y señala la opción correcta. Irakurri Tomasen umetako oroitzapenei buruzko testua, eta markatu aukera egokia.



## HIZTEGIA

**a zer oroitzapenak haiek!:** ¡qué recuerdos!

**daramatza:** lleva

**eliza:** iglesia

**Gabon:** Navidad

**kasketa:** rabieta

**lotsa:** vergüenza

**malenkoniatsu:** melancólico, -a

**meza:** misa

**oroitzapen:** recuerdo

**ozenki:** a voces

Ni heritik Argentinara (a) **bihar/umetan** etorri nintzen. Ez dut gauza asko gogoratzen, baina igandero zer egiten genuen ondo gogoratzen dut.

Goizean berandu jaikitzen nintzen, niri (b) **lo egin/lo egitea** ikaragarri gustatzen zitzaidan eta. Igandeetako gosaria, lehen, (c) **gehienetan/duela gutxi** berezia izaten zen gure etxean. Anaiari arroz-esnea eta flana gustatzen (d) **zitzazkion/zitzaion**, eta amak baserriko esnearekin goxo-goxoak egiten zituen. Eguerdian aitonarekin mezetara joaten ginen anaia eta biok.

Lehen, (e) **etzi/beti**, igandeetako arropa janzen zen elizara joateko. Niri ez (f) **zitzaidan/zitzaizun** batere gustatzen arropa hura eta kasketa hartzen nuen.

Mezetan lotsa pasatzen nuen, aitonari ozenki (g) **kantatzen/kantatzea** gustatzen zitzaion eta. Elizatik atera ondoren, Txoko tabernara joaten ginen. Aitonari salda hartzea gustatzen (h) **zitzaion/zitzaien**, eta guri kroketak gustatzen (i) **zitzaigun/zitzaizkigun**.

Ettxera pozik itzultzen ginen. Osaba Felipek gurekin bazkaltzen zuen, eta arratsaldean gurasoei osabarekin kartetan jokatzera gustatzen (j) **zitzaien/zitzaizuen**. Gu kalera joaten ginen jolastera. Anaiari pilotan (k) **jokatzera/jokatzea** gustatzen zitzaion, eta niri kilkerrak harrapatzea gustatzen (l) **zitzazkidan/zitzaidan**. A zer oroitzapenak haiek!

## gogoratu

¿C mo expresamos los gustos del pasado en frases como *me gustaba el vino*, *te gustaban los chipirones*, *no le gustaba el deporte*, etc.? .....

¿C mo expresamos los gustos del pasado en frases como *nos gustaba leer*, *les gustaba comer caramelos*, *os gustaba dormir*, etc.? .....

¿Qu marcadores de tiempo han aparecido para indicar acciones habituales en pasado? .....